

Errenteriako Energia Iraunkorrerako Planaren eguneratzea eta Jarraipena

Aurreko planaren ekintzen berrikuspena

2018/ 03/ 12



Dokumentuaren egilea:

Factor CO₂ (2018)

Colón de Larreátegui, 26, 48009 Bilbo, Bizkaia (Espainia)

www.wearefactor.com

Dokumentu hau Energia Iraunkorrerako Planaren eguneratze eta jarraipena proiektuaren parte da. Eskubide guztiak erreserbatuta. Errenteriako Udaletxearen baimenarik gabe ezin da dokumentu honen atalik kopiatu.



Txosten honen lanketan Factor CO₂-tik parte hartu duten pertsonak honakoak dira:

Itxaso Gómez, Aholkularitza teknikoaren zuzendaria.

Malake Muñoz, Proiektuaren arduraduna.

Ainhoa Galán, Kontsultorea.

Sofia Ordozgoiti, Kontsultorea.



Aurkibidea

| | | |
|------|---|-----------|
| 1. | Sarrera eta dokumentuaren helburua | 1 |
| 1.1. | Jarraipen zikloa. | 1 |
| 1.2. | Helburuak | 2 |
| 2. | Klima aldaketa ekiditzeko arintze estrategia | 3 |
| 2.1. | 2012ko Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana | 3 |
| 2.2. | Arintzera laguntzen duten beste planak eta politikak | 5 |
| 3. | Errenteriako BEG isurpenen inbentarioa | 7 |
| 3.1. | Errenteriako BEG isurpenen inbentario orokorra | 7 |
| 3.2. | BEG isurpenen inbentarioak alorrez alor | 8 |
| 4. | Isurpenen proiektzioak. EIEP eszenatokia 2020 urterako | 12 |
| 5. | Errenteriako ekintza planaren analisia | 13 |
| 5.1. | Ekintzen ezarpen maila | 13 |
| 5.2. | EIEP berria: ezabatutako ekintzak eta proposatutako aldaketak | 52 |
| 5.3. | Gaur egun arte erabilitako aurrekontua | 72 |
| 5.4. | Gaur egun arte lortutako BEG murrizpenak | 74 |
| | Bibliografia | 81 |



Taulen aurkibidea

| | |
|---|----|
| Taula 1: 2012ko Errenteriako EIEP onartu zenetik, EIEP ekintzez aparte Errenterian martxan jarri diren, eta arintzera laguntzen duten ekintzen laborpen taula. | 5 |
| Taula 2 : Errenteriako BEG inbentarioaren bilakaera. | 7 |
| Taula 3: Bizitegi alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015). | 9 |
| Taula 4 : Zerbitzu alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015)..... | 9 |
| Taula 5: Mugikortasuna alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015). | 10 |
| Taula 6: Hondakinak alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015)..... | 10 |
| Taula 7: Lehen sektorearen BEG isurpen bilakaerak (2007-2015). | 11 |
| Taula 8: Energia berriztagarriei esker saihestutako BEG isurpen bilakaerak (2007-2015). 11 | |
| Taula 9: 2017ko Errenteriako EIEP berria..... | 53 |
| Taula 11: 2012ko Errenteriako EIEP-aren aurrekontuak eta 2016 urtera arte inbertitutako dirua..... | 73 |
| Taula 11: 2013. urtetik 2016. urtera arte saihestutako isurpenak. | 75 |

Grafikoen aurkibidea

| | |
|--|----|
| Grafiko 1: Errenteriako BEG isurpenen (tCO_2e) banaketa alor desberdinetan, 2007 eta 2015 urteetarako. | 8 |
| Grafiko 2: Aurreikusitako bilakaera tendentziala, EIEP eszenatokiko bilakaera tendentzialarekin eta 2007ko eszenatokiarekin alderatuta. | 12 |

Irudien aurkibidea

| | |
|---|---|
| 1. irudia: EIEPren implementazioaren jarraipen zikloa..... | 1 |
| 2. irudia: 2012ko EIEP-aren ildo estrategikoen murrizpenerako ahalmenen irudikapena, alorraren arabera..... | 4 |



Akronimoak

| | |
|-------------|--------------------------------------|
| EIEP | Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana |
| BEG | Berotegi Efektuko Gasak |



1. Sarrera eta dokumentuaren helburua

Alkateen Ituna 2008an sortu zen eta Europa mailan energia iraunkorraren aldeko ekimenik handiena da. Borondatezko akordioa da parte hartu nahi duten udalerrientzat zuzenduta. Itunaren konpromisoa hirien energia eraginkortasuna hobetzea, energia beriztagarrien erabilera areagotzea eta beste motatako ekintzak sustatzea energia iraunkorreko politikak martxan jarritz da. Hau Energia Iraunkorrerako Ekintza Plan (EIEP) baten bitartez bideratzen da, zeinek 2020rako berotegi efektuko gasen (BEG) %20aren murrizketa ahalbidetzen duen udalerrri mailan.


Momentu honetan Itunak 7.755 sinatzaile ditu, gehienak 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak izanik. Sinatzaile guztietatik 19 Euskal Erkidegoan daude. Orain arte, 5.670 EIEP bidali dira Itunera. Guztira, Itunak 252 milioi pertsona baino gehiagoko biztanleria bere gain hartzen du.

1.1. Jarraipen zikloa.

Itunaren sinatzaileek EIEP bat aurkeztu behar dute Itunera atxikitu eta gero. Bestalde, bi urtetan behin gutxienez, plangintzan sartutako ekintzen jarraipena egin behar da, hauen aurreratze maila eta BEGen murrizketa emaitzak aztertu ahal izateko. Horrela murrizketa helburuarekiko distantzia aztertu daiteke.

Itunak eskatzen duen monitorizazioa bi fasetan banatu daiteke. Alde batetik, bi urtetan behin ekintzen jarraipen txosten bat Itunera bidali behar da. Txosten horretan estrategia orokorrean egindako aldaketak, langileen informazio kuantitatiboa eta ekintzak burutzeko erabilitako errekurtsu ekonomikoak aurkezten dira. Baita ere, EIEPan proposatutako ekintzen ezartze maila aztertzen da, lortutako emaitzekin eta inpaktuekin batera.

Bigarren fasean, lau urtetan behin, erabateko informe bat aurkeztu behar da. Horretan, aurreko paragrafoan zehaztutakoa aurkeztu ezezik, kontsumo energetiko eta BEGen isurpenen jarraipena ahalbidetzen duen inbentario bat burutu behar da, hurrengo irudian ikus daitekeen moduan:





1.2. Helburuak

Dokumentu honetan ekintzen ezarpen mailaren azterketa orokorra egingo da EIEP onartze urtetik 2016 urtera arte. Bestalde, ezarri ez diren ekintzen analisia burutuko da, beharrezkoa ikusten den kasuetan ekintza berriak proposatuz, Alkateen Itunarekin 2020 urterako hartutako konpromisoa bete egin ahal izateko.



2. Klima aldaketa ekiditzeko arintze estrategia

Errenteriako EIEP-ren egoeraren berrikuspen egokia burutu ahal izateko, 2012ko EIEP-a onartu zenetik udalerrian garatu egin diren tokiko politika eta plan guztiak biltzea eta aztertzea beharrezkoa izan da. Udalerriak azken urteetan aurrera eramandako energia, ingurumen eta hondakin politikak ezagutzeko asmoz, udaletxeak emandako dokumentazio guztia berrikusi da. Modu horretan, BEG-en murrizpena eragiten edo bultzatzen duten neurriak aztertuko dira EIEP-ren aurrerapen maila ezagutu ahal izateko.

2.1. 2012ko Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana

2012ko azaroaren 27an, Errenteriako udalerriak Alkateen Ituna sinatu zuen. Modu horretan udalerriek euren CO₂ isurpenak gutxienez %20an murrizteko konpromisoa hartzen zuten, momentu hartako Europar Batasuneko Energia-politikaren helburuetatik haratago joanez. Ituna sinatzen zuten herriek, euren udalerrian energia-iraunkortasuna hobetzeko neurriak martxan jarri behar zituzten, eta energia ekoizpen eta erabilera garbiagoa sustatzeko konpromisoa hartzen zuten.


Udalerraren abiapuntua ezagutzeko asmoz, 2004-2011 urteen arteko kontsumo energetiko eta BEG-en isurpenen inbentario bat garatu zen, baita jadanik udalerrian arintze arloan aurrera eramaten ari ziren politiken, plangintzen eta ekintzen inguruko diagnostikoa ere. Horri esker, Itunean onartutako konpromisoak betetzeko eta 2020rako lortu beharreko BEG-en isurpenak lortzeko jarraitu beharreko Errenteriako Energia Iraunkorreko Ekintza Planaren ibilbide orria definitu egin zen.

Ekintza Plana garatzeko orduan, udaletxeko barneko ordezkariak desberdinen, zinegotzi eta udal-teknikariekin, eta herritarren partaidetza bultzatu zen, energia mahaieko, ingurune-mahaieko eta Energia Euskal Erakundeko teknikariekin. Aipatutako eragile guztien arteko elkar-lanari esker, EIEParen eremuan ezarriko ziren 80 neurriak hautatu ziren.

Prozesu honen bitartez lortutako Plana ondorengo ildo estrategikoak aurkeztu zituen:

- ✓ Energia berriztagarriak
- ✓ Energia eraginkortasuna
- ✓ Ura
- ✓ Mugikortasuna
- ✓ Hondakinak
- ✓ Lehen sektorea
- ✓ Inguru naturala
- ✓ Zeharkakoa

Neurri guzti hauek 3 alor ezberdinetan jarri behar ziren martxan: Udaletxea, bizitegiak eta zerbitzuak, eta guztien artean BEG-en isurpenak %20 batean murriztea zuten helburu. Murrizpenaren %81 bizitegi alorrari zegokion, %13 Udalari eta %6 zerbitzuen alorrari.



2. irudia: 2012ko EIEP-aren ildo estrategikoen murrizpenerako ahalmenen irudikapena, alorraren arabera.

Iturria: Errenteriako 2012ko EIEPa

Bizitegi alorreko BEG isurpenen murrizpen nagusiak hondakinen sorkuntzaren murrizpenari eta hauen bereizketaren igoerari zegokiten, hainbat sentsibilizazio kanpaina eta bosgarren edukiontzia ezarpenarekin sustatzea planteatuta zeudelarik. Halaber, azpimarratzekoa da mugikortasun alorraren garrantzia, tokialdatze jasangarriagoak sustatzeko plana zegoelarik, bizikleta eta garraiobide publikoa esaterako, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz. Eraginkortasun energetikoaren ildo estrategikoa, batetik, herritarrek etxetresna elektrikoak erosteko orduan eraginkortasun energetikoko irizpideak barneratzera bideratzeko planteatu ziren, batetik, eta kanpo arrotzeria berritzera, bestetik, bai leiho sinpleak kristal bikoitzeko leihoengatik aldatuz bai materia isolatzailea ezarriz.

Jarraian, Udal eta bizitegi alorrean uraren ildo estrategikoa zen murrizteko indar gehien zuena. Lehenengoan, ez Udalean bertan lortzen diren murrizpenengatik, baizik eta udalerriko ur-hornikuntza sarea optimizatzea proposatzen zelako. Bizitegi alorrean uraren ildoan espero ziren murrizpenak lortzeko, fluxu-erregulatzailen ezartzea sustatzea planteatu zen.

Azkenik, azpimarratzekoa da zerbitzuen alorrean eraginkortasun energetikoaren ildoak murrizpenerako zuen ahalmena.



BEG isurpenen murrizpenean lagundu zezaketen beste ildo estrategiko batzuk bazeuden, zeintzuen ekarpena helburua lortzeko behar-beharrezkoa zen. Hauen artean energia berriztagarriena bereizten da. Ildo honetan biomasa, geotermia eta eguzki-energia fotovoltaikoa sustatzea jarri zen helburu moduan, pixkanaka udalerrria autohornitutako herri baterantz zuzenduz.

Errenteriako EIEP-ean, ekintza bakoitzerako, BEG isurpenen murrizpena, kostua, aurrezpen ekonomikoa, berreskuratze tasa eta lehentasuna ezarri ziren. Gainera, neurri bakoitzak duen isurpen murrizpenen ehunekoa ere azaltzen zen.

Azkenik, hainbat adierazle orokor definitu ziren, alor bakoitzerako, eta espezifikoak, neurri bakoitzerako, EIEParen jarraipena erraztu dutenak. Halaber, Alkateen Itunak eskatzen duen biurteko eta laurteko berrikustea egiteko erabilgarriak izan direlarik.

2.2. Arintzera laguntzen duten beste planak eta politikak

Errenteriako EIEP-a onartu zenetik, Errenteriako Udaletxeak beste zenbait plangintza eta politiketan ere parte hartu du.

2016an proiektu hau burutu zen: *Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena*. Proiektu honen helburua eskualdeko etxebizitzien ezaugarri energetiko eta sozioekonomikoak aztertzea izan zen, dhalik eta zehatza den egoeraren argazkia lortzeko.

Taula 1: 2012ko Errenteriako EIEP onartu zenetik, EIEP ekintzez aparte Errenterian martxan jarri diren, eta arintzera laguntzen duten ekintzen laburpen taula.

Iturria: Egileak egina.

| Planaren izenburua | Neurrifaren izenburua | Mota | Alorra |
|---|---|-------|------------|
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Etxebizitzien birgaitze energetikoa sustatu | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Iraunkorragoak diren eraikuntza sistemak, materialak eta teknikak sustatu. | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Eraginkorragoak diren sistemen inplementazioari esker lortzen diren abantaileri eta onurei buruzko informazioa. | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Etxebizitzetan erabilera energetikoa murrizteko ekintzei buruzko informazioa (etxebizitzetan ezarri daitezkeen sistema pasiboak). | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Etxebizitzetan zerbitzu energetikoei buruzko informazioa eta aholkularitza. | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Eredu energetikoa aldatzeko beharrari buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea | Plana | Bizitegiak |



| Planaren izenburua | Neurriaren izenburua | Mota | Alorra |
|---|---|-------------|---------------|
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Klimatizazio ekipoen eraginkortasuna handitu | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten instalakuntzak sustatu | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Oarsoaldeko energia txirotasunaren analisi sakona | Plana | Bizitegiak |
| <i>Oarsoaldeko etxebizitzien birgaitze energetikoa burutzeko Plan orokorraren diseinua eta garapena</i> | Oarsoaldeko karakterizazio energetikoan antzemandako auzo edo eremu konkretuetan ekintza planak burutu. | Plana | Bizitegiak |



3. Errenteriako BEG isurpenen inbentarioa

3.1. Errenteriako BEG isurpenen inbentario orokorra

Berotegi efektuko gasen inbentarioak 2007, 2014 eta 2015 urteetarako burutu dira. Honela, urte hauentzat, alor desberdinen kontsumoetatik abiatuz eta Udalsarea 21-ek emandako kalkulu-metodologia jarraituz, BEG isurpenak kalkulatu dira.

Emaitzen arabera, BEGen isurpenetan, orohar, beheraka izan da nagusi, 2007 eta 2014 urteen artean, 2015 urtean gorakada txiki bat eginez. Beherazko joera hau krisi ekonomikoaren ondorioa izan daiteke, alde batetik eta bestetik, Udaletxeak bultzatutako neurrien ondorio zuzena. Goranzko joera, aldiz, berreskuratze ekonomikoaren ondorioa izan daiteke. Dena den, 2007 urtearekiko %11ko murrizketa lortu da, industria eta lehen sektoreak kontuan izan gabe.

Isurpenak neurtzeko metodologia aldaketa izan da, eta oinarri urteko isurpenak birkalkulatu dira. Horrela, Errenteriako BEG isurpenenak 2007 urtean, hots, EIEP-aren oinarri urtean, eta metodologia berria kontuan hartuta, 169.510 tCO₂e izan ziren, industria eta lehen sektoreak kontuan hartu gabe. Biztanleko, 2007 oinarri-urteko isurpenak 4,48 tCO₂e/biztanleko izan ziren.


Taula 2 : Errenteriako BEG inbentarioaren bilakaera.
Iturria: Lanketa propioa.

| Arloak | 2007 | 2014 | 2015 |
|---|--------------------|----------------|----------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Garraioa | 104.394 | 95.046 | 98.606 |
| Bizitegiak | 33.405 | 24.204 | 26.870 |
| Zerbitzuak | 19.887 | 14.331 | 16.085 |
| Hondakinak | 11.824 | 10.834 | 9.874 |
| Industria | 95.800 | 60.795 | 73.344 |
| Abeltzaintza | 2.272 | 1.715 | 1.744 |
| Nekazaritza | 732 | 472 | 469 |
| Energia Berriztagarriak | -2774,7 | -1257,4 | -1384,5 |
| Guztira (industriarik gabe) | 172.514 | 146.601 | 153.648 |
| Guztira (industriarik eta lehen sektorearik gabe) | 169.510 | 144.415 | 151.435 |
| Guztira (industria eta lehen sektorearekin) | 268.314 | 207.396 | 226.992 |
| Isurpenak biztanleko (industria eta lehen sektorearik gabe) | 4,48 | 3,63 | 3,8 |
| Isurpenak biztanleko (industria eta lehen sektorearekin) | 7,10 | 5,21 | 5,7 |



2007-2015 denboraldian zehar, isurpen altuenak garraio alorrean izan dira, nahiz eta industria kontuan hartuz. Izan ere, urte guztietan herriko isurpenen erdia gutxi gora behera suposatu dute. Bestalde, hondakinei loturiko isurpenak urte guztietan murriztu dira. Beste sektoreen isurpenen kasuan, ordea, 2014 eta 2015 urteen artean handitu egin dira, baina 2007 urteko isurpenak baino baxuagoak mantendu dira.

Grafiko 1: Errenteriako BEG isurpenen (tCO₂e) banaketa alor desberdinetan, 2007 eta 2015 urteetarako.
Iturria: Lanketa propioa.



EIEP-an aukeratutako oinarri urtean, 2007 urtean, garraioak sortu zituen isurpenen kopururik handienak, isurpen guztien %39a suposatuz. 2015 urtean, kopuru hau handitu egin da, isurpen guztien %44a suposatuz. Aldiz, industriarekin loturiko isurpenak gutxitu egin dira %36tik, %32 batera aldatuz. Bizitegien, zerbitzuen eta hondakinen kasuan, ez dira aldaketa nabarmenak gertatu eta isurpen guztien kopuru berdintsua suposatzen dute kasu bietan. Azkenik, abeltzaintzarekin eta nekazaritzarekin loturiko isurpenak, kantitate txikiak dira urte bietan.

3.2. BEG isurpenen inbentarioak alorrez alor

Bizitegiak

Ondorengo taulan, aztertutako denboraldian bizitegi alorrean lorturiko isurpenak azaltzen dira energia iturriaren arabera sailkatuta. Oinarri urtean izandako isurpenak 33.406 tCO₂e-takoak izan ziren eta 2015 urtean, berriz 26.870 tCO₂e-takoak. Isurpen gehienak eragiten duten energia iturriak elektrizitatea eta gas naturala izan dira urte guztietan.



Taula 3: Bizitegi alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).
Iturria: Lanketa propioa.

| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|---------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Elektrizitatea | 20.886 | 13.016 | 14.812 |
| Gas Naturala | 10.014 | 7.594 | 9.318 |
| Petrolio-eratorriak (PGL) | 1.234 | 2.482 | 1.101 |
| Gasolioa | 1.272 | 1.112 | 1.639 |
| GUZTIRA | 33.406 | 24.204 | 26.870 |
| GUZTIRA biztanleko | 0,88 | 0,61 | 0,67 |

Zerbitzuak

Jarraian agertzen den taulan zerbitzuen alorrari loturiko isurpenak azaltzen dira aztertutako urteetarako (2007-2015), iturrien arabera bereiztuta. Zerbitzu alorraren isurpenak oinarri urtean (2007an) 19.887 tCO₂e-takoak izan ziren eta 2015 urtean 16.085 tCO₂e-takoak. Alor honetan, isurpen gehienak elektrizitate kontsumoen eraginez sortu dira.

Taula 4 : Zerbitzu alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).
Iturria: Lanketa propioa.

| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|---------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Elektrizitatea | 15.421 | 9.381 | 10.590 |
| Gas Naturala | 2.554 | 4.088 | 4.469 |
| Petrolio-eratorriak (PGL) | 412 | 263 | 144 |
| Gasolioa | 1.501 | 599 | 882 |
| GUZTIRA | 19.887 | 14.331 | 16.085 |
| GUZTIRA biztanleko | 0,53 | 0,36 | 0,4 |

Mugikortasuna

Jarraian, herriko ibilgailuen eraginez sortutako isurpenak aurkezten dira, erregai mota desberdinen arabera sailkatuta. Oinarri urtean (2007), garraio alorraren isurpenak 104.394 tCO₂e-takoak izan ziren. 2015 urtean, aldiz, 98.606 tCO₂e-takoak.



Beheko taulan ikus daiteken moduan, isurpen gehienak gasolioak eragin ditu urte guztietan. Bestalde, ez da aipatu biodieselaren erabilerarik.

Taula 5: Mugikortasuna alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).

Iturria: Lanketa propioa.

| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|--------------------|--------------------|---------------|---------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Gasolina | 15.229 | 11.230 | 11.795 |
| Gasolioa | 89.165 | 83.816 | 86.811 |
| Biodiesela | - | - | - |
| GUZTIRA | 104.394 | 95.046 | 98.606 |
| GUZTIRA biztanleko | 2,76 | 2,38 | 2,48 |

Hondakinak

Jarraian aurkezten den taulan, hiri hondakinen kudeaketa mota bakoitzari loturiko isurpenak azaltzen dira. Errenteriako kasuan, hondakinen alorrak eragindako isurpenak birziklapen prozesuan eta zabortegean sortutako BEG-i dagokizkie. EIEParen oinarri urtean (2007) hondakinei egotzitako isurpenak 11.824 tCO₂e-takoak izan ziren eta 2015ean 9.874 tCO₂e-takoak. Alor honetan aipatzekoa da, beste alorretan gertatu ez bezala, isurpenak urtez urte gutxituz joan direla.

Taula 6: Hondakinak alorraren BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).

Iturria: Lanketa propioa.

| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|--------------------------------|--------------------|---------------|--------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Birziklapena | 31 | 44 | 46 |
| Konpostaiak | 0 | 0 | 0 |
| Tratamentu mekaniko biologikoa | 0 | 0 | 0 |
| Errausketa | 0 | 0 | 0 |
| Zabortegea | 11.793 | 10.790 | 9.874 |
| GUZTIRA | 11.824 | 10.834 | 9.874 |
| GUZTIRA biztanleko | 0,31 | 0,27 | 0,25 |

Lehen sektorea



Behoko taulan, lehen sektorearen eraginez isuritako BEG-en kantitateak ikus daitezke. 2007 urtean, alor honen isurpenak 2.346 tCO₂e-takoak izan ziren eta 2015 urterako 1.555 tCO₂e-takoak. Urte guztietarako, abeltzaintzak du eraginik handiena lehen sektorearen isurpenetan. Bestalde, karbono hustulekuen eraginez, 658 tCO₂e gutxiago isuri dira urte bakoitzean.

Taula 7: Lehen sektorearen BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).

Iturria: Lanketa propioa.

| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|--|--------------------|--------------|--------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Abeltzaintza | 2.272 | 1.715 | 1.744 |
| Ohiko nekazaritza | 732 | 471 | 468 |
| Nekazaritza ekologikoa | 0 | 1 | 1 |
| Karbono hustulekuek atxikitutako tCO ₂ e kantitatea | -658 | -658 | -658 |
| GUZTIRA | 2.346 | 1.529 | 1.555 |
| GUZTIRA biztanleko | 0,06 | 0,04 | 0,04 |

Energia berriztagarriak

Ondorengo taulan, energia berriztagarriari esker saihestutako isurpenak agertzen dira. Guztira, oinarri urtean 2.774,7 tCO₂e saihestu ziren eta 2015 urtean, ordea 1.384,5 tCO₂e. Saihestutako emisioen kopuruan dagoen jaitziera hau, energia minihidraulikoari esker ekoiztutako elektrizitate kopurua gutxitu delako da. Berriztagarri ez elektrikoaren artean, biomasak du garrantzirik handiena. Berriztagarri elektrikoaren artean, ordea, energia minihidraulikoa da elektrizitate gehien ekoizten duenak, bere atzetik eguzki-energia fotovoltaikoa agertzen delarik

Taula 8: Energia berriztagarriari esker saihestutako BEG isurpen bilakaerak (2007-2015).

Iturria: Lanketa propioa.


| Iturria | 2007 | 2014 | 2015 |
|------------------------------|--------------------|-----------------|-----------------|
| | tCO ₂ e | | |
| Berriztagarri ez elektrikoak | 0,8 | 13,8 | 13,8 |
| Berriztagarri elektrikoak | 2.773,9 | 1.243,6 | 1.370,7 |
| GUZTIRA | -2.774,7 | -1.257,4 | -1.384,5 |
| GUZTIRA biztanleko | -0,07 | -0,03 | -0,03 |



4. Isurpenen proiektzioak. EIEP eszenatokia 2020 urterako

Ondorengo grafikoan, Energia Eraginkorrerako Ekintza Planaren neurriei loturiko BEG isurpen murrizpenen eraginez 2020 urtean aurreikusten den eszenatokia aurkezten da. Errenteriako EIEParen parte diren ekintzek, 2020 urtean, 2007 oinarri urtearekiko berotegi efektuko gasen %20-ko murrizpena batu beharko lukete, guztien artean 34.503 tCO₂e-ko murrizpena lortuz. Gaur eguneko egoera ikusita, eta lortutako murrizpenak ikusita, EIEP-a ezartzen jarraituko ez balitz isurpenen %0,25 baten gehikuntza ikusiko litzateke (urte bakoitzean %0,05 baten hazkundera ekonomikoa suposatzen da). Aldiz, EIEP-aren ekintzak ezartzen jarraituz gero, isurpenak beste %11 batean murriztuko lirateke helburua lortzeko.

Grafiko 2: Aurreikusitako bilakaera tendentziala, EIEP eszenatokiko bilakaera tendentzialarekin eta 2007ko eszenatokiarekin alderatuta.
Iturria: Lanketa propioa.





5. Errenteriako ekintza planaren analisia

5.1. Ekintzen ezarpen maila

Errenteriako EIEP-ko neurrien ezarpen maila desberdina da. Proposatutako ekintzetatik, 13 neurri eginda daude, beste 46 hasita eta 18 egin barik geratzen dira. Hurrengo tauletan neurri bakoitzaren ezarpen maila aztertzen da kasuz kasu.

| | |
|--|--|
| Neurriaren izenburua | Udal-erakinen birgaitzea eraginkortasunean oinarritutako irispideak ere kontuan hartuz |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.1 |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna |
| Neurriaren laburpena | Itxitura zaharkitu edo isolamendu gabekoetan, fatxadaren birgaitzea proposatzen da. Neurri hau, ondorengo udal eraikinetan burutuko da: -Koldo Mitxelean Markola (Leihoak). -Beraun (Leihoak) -CIP (Leihoak). -Beraunberri (Leihoak) -Langaitz (Leihoak) |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea /Xabier Agirre |
| Aurrekontua | 285.000,00 € |
| Indikatzailea | Konsumo energetikoa/Azalerako aurrezpena |
| Isurpenen murrizpena | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) |
| 59,00 | 142,78 |
| Inbertsioa | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak |
| 1.196.026,31 € | 104.106,00 € |
| Ezarpen maila | Hasita |

Oharra: Ekintza honek aurreikusitako helburuak gainditu ditu. EIEP-an egindako fitxan ezarritakoaz aparte, leihoak beste eraikuntza batzuetan aldatu dira (Cristobal Gamón, Zaharren egoitza, Olibet, Markolako Zaharren egoitza, Mandoegi Haurreskola). Bestalde, Oiarso eraikinaren teilatua berritu da eta Kapitain Etxeko eraikuntza guztiz berritu da.



| | | |
|--|--|-------------|
| Neurriaren izenburua | Udal instalazio eta zerbitzuetan, energia erabilpenaren kontrol eta kudeaketa egokia egin | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.2 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Kontsumo energetikoen kontrol eta kudeaketa apropos batekin: - Kontsumoen jarraipena eginez, kontsumitutako energiaren kontrol zehatzago bat edukiko da. - Eraikinen kontsumoaren kudeaketa eta eraikina erabiltzen ez denean, kontsumoen kontrola egin ahalko da. - Aurrezpen energetikoaren eboluzioaren kontrola aurrezpen neurriren bat aplikatu ondoren. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 97.000,00 € | |
| Indikatzailea | Kontsumo energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 825,00 | 4,21 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 40.102,98 € | 42.182,45 € |
| Ezarpen maila | Hasita | |

Oharra: Udaltzaigoaren berokuntza eta klimatizazio sistemen monitorizazioa.

| | | |
|--|--|-------------|
| Neurriaren izenburua | Gasola kontsumitzen duten galdarak edo galdara elektrikoak gas naturala kontsumitzen duten galdarengandik aldatu | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.3 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Neurria, erregaia aldatzean datza. Gaur egungo galdarak, erregai berrira bihurtuko dira edo galdara berri eta eraginkor bat instalatuko da. Gas naturalaren erabilera, aurrezpen ekonomiko bat suposatzeaz gain, CO2 emisioen gutxiagotze bat suposatzen du. Eraldaketa, hurrengo instalazioetan burutuko da, - Udal Euskaltegia. - Ludoteka - Gazteleku - Koldo Mitxelena - Markola | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 36.000,00 € | |
| Indikatzailea | Eraldaketa egindako instalazioak/Kontsumo energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 9,00 | 62,02 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 46.909,00 € | 10.143,00 € |
| Ezarpen maila | Hasita | |

Oharra: Uztargi Haurreskolan burutu da.



| | | |
|---|--|--------|
| Neurriaren izenburua | Galdararen errendimendua optimizatu | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.4 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Udal eraikinen galdaren erregailua doitu. Galdarari egingo zaion konbustioaren analisisan, O ₂ portzentaia %2-3 artean egon beharko dira. Horrela, irteerako gasetako galerak minimoak izango dira, errendimendua maximoa izanez. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 0,00 € | |
| Indikatzailea | Neurria aurrera eramatea eta kontsumo energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO₂b) | Lortutakoa (tCO₂b) | |
| 82,00 | | 0,00 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 0,00 € | | 0,00 € |
| Ezarpen maila | Ez da egin | |

| | | |
|---|---|------------|
| Neurriaren izenburua | Berokuntza sistemaren sektorizazio solairuka | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.5 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Gaur egun, eraikinak ez daude sektorizatuta. Ondorioz, berokuntza sistema osoa martxan jartzen da. Gune desbardinak eta solairuak sektorizatzea proposatzen da, era honeta, berokuntza sistema independentea izango da eta gune edo solairu bakoitza erabiltzen denean bakarrik jarriko da martxan. Hasiera baten, Niessen eraikina eta udaletxearen sektorizazioa suposatuko da. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 14.000,00 € | |
| Indikatzailea | Neurriaren burutzea eta kontsumo energetikoa. | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO₂b) | Lortutakoa (tCO₂b) | |
| 134,00 | | 3,64 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 22.380,45 € | | 7.864,65 € |
| Ezarpen maila | Hasita | |

| | | |
|---|---|--------|
| Neurriaren izenburua | Barne temperaturren kontrola. Udako temperatura ez da 26 °C baino gutxiago izango eta neguan 21 °C baino altuagoa. | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.6 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Termostato 21°C-tara erregulatuko da neguan eta 26°C-tara udan, tenperatura egokia hau baita. Gradu bat igotzen bada neguan edo jaitsi udan, kontsumoa %7 altuagoa izango da. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 40.800,00 € | |
| Indikatzailea | neurria aplikaturiko eraikin kopurua / aurrezpen energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO₂b) | Lortutakoa (tCO₂b) | |
| 70,00 | | 0,00 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 0,00 € | | 0,00 € |
| Ezarpen maila | Ez da egin | |



| | | |
|--|---|--|
| Neurriaren izenburua | Lanpara fluoreszente konbentzionalak, lanpara eraginkorrago batzuegatik aldatu | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.7 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Gaur egungo lanparak, lanpara eraginkorrago eta balasto elektronikodunengandik aldatzea proposatzen da. Lanpara hauek, hurrengo abantailak dituzte, - Lanpararen bizitza luzatzen dute. - Lanpararen argi fluxuaren erregulazio on bat bideratzen dute. - Pitzarazgailua ez da aldatu behar, lanpara aldatzen den bakoitzean, ez baitute. - Potentzia faktorea unitatearen hurbil egongo da (0,98) | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 4.104,00 € | |
| Indikatzailea | Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| 16,00 | 30,08 | |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 86.959,01 € | 17.846,00 € | |
| Ezarpn maila | Hasita | |

Oharra: Ekintza honen barruan, 1.1.9 eta 1.1.3 ere hartu dira kontutan

| | | |
|--|--|--|
| Neurriaren izenburua | Beraun Berri eraikineko argiztapena aldatu, argiztapen eraginkor bategatik | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.8 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Gaur egungo lanparak, lanpara eraginkorrago eta balasto elektronikodunengatik aldatu. Argi fluxu berdina lortuz, potentzia instalatu txikiago batetik abiatuz. | |
| Arduraduna(k) | Uxue Arostegi | |
| Aurrekontua | 41.415,94 € | |
| Indikatzailea | Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| 21,00 | 8,27 | |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 41.415,94 € | 10.354,00 € | |
| Ezarpn maila | Eginda | |



| | |
|--|---|
| Título de la medida | Sustitución de lámparas halógenas por lámparas con tecnología LED en aseos |
| Número de medida | 1.1.9 |
| Línea estratégica | Eficiencia energética |
| Resumen de la medida | Actualmente los aseos de los edificios municipales disponen de lámparas halógenas, las lámparas LED son mas eficientes por lo que para aportar la cantidad de luz necesaria en estas instancias, consumen menos energía. Suponiendo esto un ahorro de energía. Esta medida se propone realizarla inicialmente en el edificio Niessen. |
| Responsable(s) | Niko Bengoetxea |
| Presupuesto | 5.640,00 € |
| Indicador | Potencia sustituida y consumo energético |
| Reducción de pérdidas | |
| Reducción de emisiones esperada durante el periodo del PAES (tCO2eq) | Reducción lograda (tCO2eq) |
| | 3,00 |
| Inversión | |
| Ayuntamiento | Otras instituciones |
| Nivel de implantación | Iniciada |

Oharra: lanparak aldatu dira Niessen eraikineko auditorioan eta liburutegian (20 lanpara ordezkatu 4x2 W LEDera, eta 11 lanpara 1x7W), Niessen eraikineko komunitako lanparak falta dira aldatzeko. **Ekintza hau 1.1.7 ekintzarekin bateratu egin da.**

| | | |
|---|--|--------|
| Neurriaren izenburua | Deskarga lanparak fluorezenteengatik aldatu (Polikiroldegia) | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.10 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Gaur egungo deskarga lanparak (VSAP eta HM), 58 W-ko lanpara fluorezenteengatik aldatzea proposatzen da. Neurri honek, Squash pista eta igerilekuko argiztapena aldatzea proposatzen du. | |
| Arduraduna(k) | Luis Peña | |
| Aurrekontua | 31.844,00 € | |
| Indikatzailea | Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa | |
| Isurpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 25,00 | 13,16 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 31.844,00 € | 0,00 € |
| Ezarpn maila | Eginda | |

| | | |
|---|--|--------|
| Neurriaren izenburua | Polikiroldegiko balio anitzeko pistako luminarien aldatzea eta birkokatzea | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.11 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Gaur egun, halogenuro metaliko (47) eta sodio lurrunezko (47) argi puntuak daude. Puntu hauek aldatu eta birkokatzea proposatzen da, 46 luminari instalatuz, hauek halogenuro metaliko motakoak izango dira. | |
| Arduraduna(k) | Luis Peña | |
| Aurrekontua | 40.658,00 € | |
| Indikatzailea | Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa. | |
| Isurpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 55,00 | 28,54 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 40.658,29 € | 0,00 € |
| Ezarpn maila | Eginda | |



| | | |
|--|---|-------------|
| Neurriaren izenburua | Igerilekuetan berritzea beharrezkoa den uraren beroaren berreskurapen energetikoa | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.12 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Barne igerilekuak, ur kantitate zehatz bat berritu behar dute egunero. Galtzaraborda eta Fanderia polikiroldegien kasuetan, sarrerako ura berotzeko erabiltzea proposatzen da. Era honetan, gaur egun ura berotzeko erabiltzen den gas natural kontsumoa murriztuko da. | |
| Arduraduna(k) | Luis Peña | |
| Aurrekontua | 25.200,00 € | |
| Indikatzailea | kontsumo energetikoa | |
| Isurpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 314,00 | 40,24 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 54.134,65 € | 27.635,00 € |
| Ezarpn maila | Eginda | |

| | | |
|--|---|--|
| Neurriaren izenburua | Pasilloetan mugimendu sentsoreen instalazioa | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.13 | |
| Ildo estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Mugimendu sentsoreen instalazioarekin, pasilloetako argiztapen piztuta egotea ekidituko da, pasilloetatik inor ez dabilenean. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 500,00 € | |
| Indikatzailea | Aldatutako potentzia eta kontsumo energetikoa. | |
| Isurpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 3,00 | |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | | |
| Ezarpn maila | Hasita | |

Oharra: Niessen eraikuntzarako zegoen zuzenduta baina orain beste eraikuntza batzuetan jarri da martxan: Salto del Angel eskola, liburutegia eta Langaitza eskola eta Trakets. **1.1.7 ekintzarekin lotuta dagoenez, lortutako isurpen murrizpenak eta erabilitako inbertsioa han eduki da kontuan.**



| | | |
|---|--|--|
| Título de la medida | Alumbrado público: Sustitución de lámparas de descarga actuales por lámparas más eficientes. | |
| Número de medida | 1.1.14 | |
| Línea estratégica | Eficiencia energética | |
| Resumen de la medida | El cambio de las lámparas de iluminación exterior existentes por lámparas nuevas mas eficientes supondrán un ahorro energético. Las luminarias viales a sustituir se encuentran en la calle: - Azañeta. - Koldo Mitxelena - Lope Isasti. - Olibet - Zabaleta - Alumbrado exterior general | |
| Responsable(s) | Niko Bengoetxea | |
| Presupuesto | 290.778,00 € | |
| Indicador | Reducción conseguida | |
| Reducción de pérdidas | | |
| Reducción de emisiones esperada durante el periodo del PAES (tCO2eq) | Reducción lograda (tCO2eq) | |
| 875,00 | 470,84 | |
| Inversión | | |
| Ayuntamiento | Otras instituciones | |
| 642.408,60 | 249.908,50 € | |
| Nivel de implantación | Iniciada | |

Oharra: EIEP-a baieztatu zen momentuan aurreikusitako helburuak gaintitu dira kasu honetan. Fitxan adierazitakoaz aparte, argiztapen aldaketak egon dira leku hauetan: Kaputxinos, Beraun auzoa, Alaberga Goiko, Cristobal Gamón, Agirren enparantzan, Galtzaraborda, Peña de Aia, Plaza Monroy, Telefónica, Luis Mariano enparantza eta Fanderia.

| | | |
|--|---|--|
| Neurriaren izenburua | Argiztapen publikoa: Fluxu erregulatuzaileen instalazioa, hauen bitartez, kanpo argiteriaren kontsumo energetikoa gutxiagotzea espero da | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.15 | |
| lido estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Fluxu erregulatuzaileak hurrengo kuadroetan instalatuko dira: - Ernio - Gamboa Plaza - Nafarroa etorbidea - San Marcos - Beraun - Galtzaraborda | |
| Arduraduna(k) | Uxue Arostegi | |
| Aurrekontua | 330.515,00 € | |
| Indikatzailea | Lortutako aurrezpena | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| 3.234,00 | 1.198,11 | |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 330.514,48 € | 121.263,00 € | |
| Ezarpn maila | Eginda | |



| | | |
|--|--|--------|
| Neurriaren izenburua | Udal eraikinetarako ekipo berriak erosteko orduan (ordenagailu, fotokopiadora...) energia eraginkortasun aspektuak kontuan eduki | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.16 | |
| lido estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Eroste, etiketa energetiko eta ekipo desberdinen kontsumo energetikoari buruzko zabalkunde kanpainak burutuko dira. Kalukulentzat, 150 ordenagailu eta 37 inpresoren aldaketa suposatu da. | |
| Arduraduna(k) | Jose Luis Areizaga | |
| Aurrekontua | 149.400,00 € | |
| Indikatzailea | Kontsumo energetikoa eta aldatutako ekipoak | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| 38,00 | | 32,48 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 96.773,40 € | | 0,00 € |
| Ezarpn maila | Hasita | |

Oharra: Urtero 35 ordenadore eta 10 inpresora aldatu direla suposatu da.

| | | |
|--|---|--------|
| Neurriaren izenburua | Sentsibilizazio jardura bereziak antolatu, Udal langileek kontsumo arduratsuen eta natur baliabideen kontsumo iraunkorraren baloreak eskuratu eta barneratzeko | |
| Neurriaren zenbakia | 1.1.17 | |
| lido estrategikoa | Energia eraginkortasuna | |
| Neurriaren laburpena | Burutuko diren sentsibilizazio ekintzak jarraian zehazten dira: - Argi naturalaren onura sustatzeko neurriak martxan jarri. - Argien pizte eta itzaltze egokia... - Berokuntza sistemen erabilera egokiena. - Tresna elektrikoak erostean, kontuan hartu beharreko faktoreak zeintzuk diren azaldu, ekipoaren klase energetikoaren garrantzia azalduz. Burutuko diren ekintzak jarraian zehazten dira: -Praktika onen gida. -Publizitazio triptiko bat. -Tailerrak. | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 6.600,00 € | |
| Indikatzailea | Burututako kanpainak | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| Ez dagokio | | |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| 0,00 € | | 0,00 € |
| Ezarpn maila | Ez da egin | |



| | | |
|--|--|--------|
| Neurriaren izenburua | Plaka fotoboltaikoen instalazioa | |
| Neurriaren zenbakia | 1.2.1 | |
| Ildo estrategikoa | Energia berriztagarriak | |
| Neurriaren laburpena | Plaka fotoboltaikoak, hurrengo eraikinetan instalatuko dira - Mantenu urbanoko terrazan : 45 kW. - Beraun: 5 kW - Cristobal Gamon: 5 kW - Ikastola Langaitz: 5 kW - Capuchinos igerilekuak: 10 kW | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 175.000,00 € | |
| Indikatzailea | buruturiko instalazioak eta instalaturiko potentzia | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
| Isurpen murrizpenak EIEP denboraldian (tCO2b) | Lortutakoa (tCO2b) | |
| | 209,99 | 76,82 |
| Inbertsioa | | |
| Udaletxekoa | Beste erakundeak | |
| | 150.000,00 € | 0,00 € |
| Ezarpn maila | Eginda | |

Oharra: 5 instalazio (Hirigintza mantenuko terraza -40 eta 5kW-, Beraun, Cristóbal Gamón, eta Ikastola Langaitz 5Kw, Galtzaraborda kiroldegia 10kW).

| | | |
|--|---|--------|
| Neurriaren izenburua | Eguzki plaka termikoen instalazioa | |
| Neurriaren zenbakia | 1.2.2 | |
| Ildo estrategikoa | Energia berriztagarriak | |
| Neurriaren laburpena | Plaka termikoak hurrengo eraikinetan instalatuko dira - Udal polizia - Capuchinos igerilekua - Lekuona | |
| Arduraduna(k) | Niko Bengoetxea | |
| Aurrekontua | 30.000,00 € | |
| Indikatzailea | Instalaturiko azalera | |
| Isuperpenen murrizpena | | |
